

MUNIBE (San Sebastián)
Sociedad de Ciencias Naturales **ARANZADI**
Año XXIII. N.º. 4. 1971. Páginas 579-582

Edesti-Aurreko gure erria

LOPEZ-MENDIZABAL'dar IXAKA'k

Ikusten diranak eta baita ikusten ez diranak ere, beren jatorria edo asiera ba dute.

Gizona gizon danak gai guzien jatorria jakiteko gogoia beti izan du, eta jakintzaleak bizi diran bitartean or dabilta gau eta egun asiera edo sorrera ori arkitu naiean. Jakintzale oek arkitu izan dituzten jatorri eta asiera arrigarriak, sinistez gaitzak ziran ezkutapenak argitara atera dituzte. Bere lan zail eta sakonak amaika atsegin eta aurrerapen gizadiari ekarri dizkiote. Orrelako gizonen izenak mundu guzien zabalduak izan dira, eta ongi irabazia dute guzioen maitasuna ainbeste eta ain gogoz, jakintza aurrera eraman dutelako.

Azkenengo urte oetan izan dan asmaketa audienetako bat auxen degu: orain arte uste zan gairik txikiena, apurtxoa edo «atomoa» zala eta ezin ebaki edo erdibitu zitekela. Bañan lan sakon eta sendoak egiñaz, azkenik apurtxo ori zatitu dute eta bere barrenen gauz arrigarriak arkitu dituzte. Eguzkiak bere inguruan izarbel edo berez argigabeak dituen bezela, atomoak ere bere barrenen, bere txikitasunean ba ditu erdiko guna (nukleoa) eta inguruko zatitxoak.

Bañan zatitze ori arrigarria izan ba da, oraindik arrigarrigoa da jakitea ortik sortzen dan indarra ikaragarria dala, eta mundu guzia, ori jakitean, bildurrez jarri da.

Orrelako ezkutapen zoragarriak argitara ekartzea benetan arrigarria izan da. Bañan oraindik zenbat eta zenbat ezkutapen illunpetan arkitzen ote dira?

Beraz, jakintza aurrera dijoa eta orrelako ezkutapenak egunetik egunera, noski, argituko dira.

Urrutira joan gabe, gu, euskaldunok, noiztik mundu ontan bizi ote gera? Gauden tokian sortu ote giñan? Gure abenda besteenetik urruti arkitzen al da? Gure izkuntza, gure euskera, noizkoa da, eta nola sortu zan? Gure Euskal-Erria ementxen bertan, errialde bezela noizkoa ote da? Ba dute, beraz jakintsuak bere asmaketak argitzeko gaia ugari.

Gure aldetik bada alegiñak egin ditzagun gure eskutapenak argitzeko asmotan. Gatozen, bada, gure errira eta gure aurrekoak nola bizi ziran eta zergatik toki au aukeratu zuten, jakin naiean, lerro batzuek ipiñi ditzagun.

Orain millaka urte dirala, lau adiz mundu ontan otz ikaragarriak izan ziran, eta gaur munduaren Iparburu eta Egoburuan arkitzen diran izotz aundiak, oso beraño jetxi ziran, munduaren zati aundiak izotzpean geldituaz, beren gañean iñor ezin bizirik.

Izotz-aldi oek lau bider gutxienez, izan omen ziran, eta irugarren eta laugarren arteko epelaldian, ba dakigu garbi, emen bertan, gaur bizi geran tokian, gizonak ba zirala, eta jakint-suen ustez gaurko euskaldunak bezelakoak. Orrela agertu digute garbi beren ezur-kondarrak eta buru-ezurrak Aranzadi, Eguren eta Barandiaran jakintsuak leizetan arkitutako ezur-kondarrak agertzen diguten bezela.

Menendez Pidal jakintsuak dionez, gure euskera itz egingo zutela gure aurrekoak, laugarren izotz-aldia baño lenago gaurko giroa baño len. Beraz, gure izkera izkuntzetan arrigarriene-tako bat izango da.

Bañan gure aurrekoak zergatik aukeratu zuten orain ere gurea dan toki au guzia? Gure ustez ona emen zergatik au izan zan. Garai artean Iparburuko izotzak Ingalterra, Belgica eta Alemania'ren zati geiena eta orrela beste toki asko, izotzpean zeuden, iñor an bizi eziñik. Eta gure aurrekoak Bizkai'ko Itxas-zokoa izena duen tokia beretzat artu zuten, eta Paris'ko Sena-ibaitik bera aldera itxas ertzeko lur-zirrindara, gaurko euskalerriraño, eta emendik beti itxas-ertzean ezkeraldera, gaurko Asturias'eraño eta baita Auñamendi edo Pirineoan aurreruntz, or-txen, erabat, gelditu ziran.

Aukera ori egin zuten, noski bi gauzagatik: bata lur-zirrindara ortako mendietan leiza-zulo asko arkitzen ziralako, eta beretan bizitzeko babes epela zutelako, eta, bigarrenez, itxas-ertz au beste toki guziak baño epelagoa zalako.

Bañan epeltasun ori nundik edo zertatik etortzen zitzaion? Gure ustez ona emen bere zergatia. An urrutian, Itxas zabalaren beste aldean gaurko Ameriketan beste Itxas-zoko aundi bat, Mexiko'ren Itxas-zokoa arkitzen da. Bertako udak oso beroak dira, eta mundua mundu da-netik andik sortzen dan Ur-bizi epela Europa'runtz etortzen da alde au guzia epelduz.

Gaurko egunean guziak ba dakite Ur-bizi orren laguntzaz Noruega ere epelagoa dala Suezia baño, lenbizikoa legorreko ertza berotzen duelako, eta ez bestea, erdiko mendi baten beste aldetik dagolako.

Bañan orduan Ingalterra bera ere izotzpean arkitzen zan goialdeko beste lurrak bezela eta Mexiko'tik zetorren Uz-bizia ezin igo zan, gaur joaten dan bezela Noruega-aldera, eta argatik Ur-bizi ori guzia gure Bizkai'ko Itxas-zokora etortzen zan, Iparraldeko itxaso guziori gogortua zegoen bitartean. Bañan gure txoko au, Bizkai'ko zoko onera, Mexiko'tik zetorren Ur-biziak bere epeltasuna ekartzen zioten eta baita ere bere ezetasuna. Oni eskerrak itxas-ertz guzi ortan belarrak ugari sortzen ziran eta eiza eta abere askoren janaria belarra bai zan, mamut, konkordun-zezena, basauntz, izotz-zakurra, zezen, zaldi, artza, orkatza, basurde eta beste askok belarra baizik jaten ez bai zuten eta argatik berak ugari eta ondo emen bizi ziran.

Ortik garbi agertzen da gure aurrekoak leiza-zulo ugarietan beren babesa arkitu zutela, eta gañera itxasoak ekartzen zioten epeltasunak, legorreko belardi aberatsak sortzen zizkate-lako, bai berentzat, eta baita ere emen bizi ziran abere askorentzat.

Bizkai'ko itxas-zokoak dituen bi egalak, beren erditokia orain bizi geran leku berean zegoen. eta Isturitz'ko leizea izango zan, ordungo gizadi guzi arren toki nagusia eta burua. Isturitz'tik Ipa-rralderuntz igoaz, France'ko Sena ibairaño gutxienez, leizez beteak ikusten dira. Eun baño geia-go eta beren barrenen egin diran azterketetan arkitu diran marrezki ederrak arrigarriak dira.

Ordungo abere aek guziak ezin obeto marreztuak gertzen dira, batzuek beltzez, bes-teak gorritz eta beste batzuk margo askotan egiñak.

Berak garbi erakusten digute garai artako giza-emakumeak adimen bizkorrekoak zirala eta beren sinismenak ere ba zituztela.

Isturitz'ko leizetik ezkeraldera joaten ba gera, beste leize asko itxas-ertzeko mendietan oraingo gizonak argira aztertu dituztenak arkituko ditugu geienak gaurko euskalerrian bertan eta ezkererago joanda, oen artean Altamira'ko leizean dauden margo askotako marrezkiak arrigarriak izan dira.

Marrezki oek guziak beren artean era berdiñekoak dira, eta onek erakusten digu gizon aek abende edo odol batekok izango zirala eta abenda ori euskalduna, noski. Bat edo batek, nere adiskide maite zan Breuil jaunari galdetu zion ea Isturitz'tik goialdeko leizetako marrezkiak eta ezkeraldekoak aidetasuneko gizonak egiñak ote ziren ala beste abendakoak.

Ona emen Breuil jakintsu eta nere adiskide maitagarriak erantzun ziona: —Bai, marrezki oen artean, aldaera edo berezitasun batzuek ba dira, bañan baita ere berdintasun arrigarriak, eta abenda bateko gizonak zirala garbi agertzen digute, gure ustez guziak euskaldunak egiñak ziralako.

Isturitz'tik eskubiruntz Auñamendi luzean, eta bertan ere, ez beste tokitan ainbat, aldi artako leize asko eta arrigarriak arkitu dira.

Ordungo gizonak menasterik edo burni edo onelakorik ez zuten ezagutzen, eta argatik berak erabiltzen zituzten tresna guziak arriz egiñak ziran. Arri oni deitzen diogu euskeraz «arkaitz» (arri-gaiz edo arri gogorra), erderaz silex, eta gauz jakingarria: goitik asita, gaurko euskalerriraño silex edo arkaitz ori oso gogorra zan eta berari eskerrak ainbeste eta ainbeste tresne egin zituzten, bañan gure euskalerritik ezkereruntz joanaz, silex-arria biguñagoa da, eta bere ordeaz kuarzita izena duen arria erabiltzen zuten.

Aldi artako gizonen tresnak arrizkoak zirala ikusiaz, France'ko Baudrimont jakintsuak oartu zan tresna oek guziak aitz-itza, erderazko arria erakusten zigutela, aitzaz egiñaz ziralako, eta ortik etorri ziran aizkora, aitzo, aitzur, aitzurak eta guaizeak, aizkon, izkillu, aiotz, aizkol, aizpil, zulakaitz, eta abar.

Itz oek guziak erakusten digute bada, aldi artako gizonen izkuntza gaurko euskera bera zala. Eta millaka urtetan, burnia eta beste menastak sortu arte arrizko edo aitezko tresnak erabili zituztela.

Bañan goazen berriz ere gure itxasoaren ertzera, eta bereala ikusten degu gure ibai guziak itxasora sartzen diran tokian, beren eskubialdera ondartzza edo ondarretak sortu dirala. Eta onela ditugu Bilbao'ko Ibaizabal izena duen ibaia itxasoratzean Ondarreta izena duen ondartzza arkitzen dala, eta onen antzera Mundaka'ko ibaian, Zumaia'n, Deba'n, Zarauz'en, Orio'n, Donosti'ko Zurriola'n, Ondarrabi'n dagon Bidasoa'ko irteeraren eskubialdeko Ondarraitz'en, Donibane Lohitzun'en, Baiona'n, eta baita Gironde'ko irteeran eskubialdean dagon Royan'go ondartzza.

Askotan esan oi da gure itxasoko ertzetan agiri diran ondertzak, aizearen indarrak egiñak dirala. Gure iritzia ez da orrelakoa. Egia bai izango da indartsuak, ekaitza danean olatu aundiak sortzen dituala legor-ertzeko arriak txetu eta puskatuaz. Bañan gure errialdean ez dira beste toki batzuetan bezela luzaroan bide berdiñean dijoazten aizeak bezela. Emen orrelako aizerik ez da ezagutzen. Ez Iparreko aize zorrotzak, ez Egoaldeko aize beroak, ez dute luzaroan irauten, eta ebi-aizeak luzaroago irauten ba du, ez da bañere orren indartsua izaten.

Gure ustez, bada, ondartzza oek, Mexiko'tik datorren Ur-biziak egiñak dira. Gure ibaiak itxasora sartzean beren aurrean eta beren aurka Mexiko'ko Ur-biziaren indarra arkitzen dute, eta burruka orrek millaka edo milloika urtean egindako lana garbi agertzen da, eta beti itxasoak berak ibaia beretzat artzean eta bien artean egiten dan burrukan sortzen dan arri txe eta ondar ieguna, beti ibaiaren eskubi-aldean ikusiko degu, Mexiko'ko Ur-bizia eskerraldean datorelako.

Orain berrogeitamar urte dala egazkin batean Donosti gañean eta inguruan nebillera garbi ikusi nuen Zurriola'ko olatuak eta Kontxa'koak, bi ondartzza oen artean mendi aundi bat arkituarren (Urgull-mendia), une berean ondarretan lertzen zirala. Egun artan Egoaize gogorra zan, bañan ala ere olatuak aizearen aurka austen ziran, nere ustez itzasoko indarrak, urrutitik zetorren Ur-bizi arrek olatuen berdintasun ura egiten zuelako.

Itxaso arrek ekartzen zigun bada, orain bezela Mexiko'ko itxasoaren epeltasun ongarri ura. Eta berari eskerrak gure txoko maitagarri au gure aurrekoentzat bizitzeko toki ederrena eta gozoena izan zan, eta baita ere gure mendietako leizetan aterpe eta babes atsegingarriak zituztelako.

Orra bada nere iritzia esan, gero jakintsuak berena eman dezaten. Eta jakintsu oen artean ba degu bat guretzat maitagarria benetan J. M. Barandiaran jauna.

Bijoz bada nere itz oek biotz-biotzez bere gorazarre eta omenaldi beroena bezela.



Izotz-aldia Europa'n. (M. Boule)